

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure negozioa, berez, ia antzeko beharrak dituzten adin ezberdinetako bezero mota guztiei zuzenduta dago. Izan ere, guzti guztiok hiritik mugitzeko beharra dugu eta adina ez du ezertan eraginik bidaiatzeko eskubidean. Gure bezeroen ezaugarriak, oso dibersifikatuak egon ahal dira, denok aukera izan ahalko dute gure bidai-zerbitzua ordaintzeko bere adina kontuan izan barik. Salbuespen bakarra da 12 urtetik beherako inor ezin dela sartu bertan.

Gure bezero-taldea bi motatakoak izango dira: bazkideak eta ez-bazkideak. Bazkideak, txartel bat izango dute zeinetan barruan dirua sartu ahal izango dute eta bidai bakoitzean, ez-bazkideak baino gutxiago ordainduko dute.

Antzerako beharrak eta arazoak dituzten kontsumitzaileen talde handi baten beharrak betetzen ditugunez, gure merkaturia masiboa izango da zeinetan denon arazo komunak konponduko ditugu.

